EGUNA

JEL

Lgo. urtia | 43'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. otsalla 19'gna. barikua | 15 eunen

Gaur, eta biyar 18 urtetik 45 artekuak gudari kontrol agiriak atara bior ditue.

Frantze'ko gobernuaren erabagi gogorrak

Italiarrak eta paxistak burrukan euren artian Tunez'en.-Uriolak Afrika'n.-Iru milla baltz ito dira.-Lau milla langille lan barik.-Madrid'eko izparrak.-Inglaterra'ko diru geitzeak gudarako.-Malaga'tik igezka yoazenei paxistak egin autsezan basatikeriak.

ERKALDAREN ERASOA

Madrid. — Madrid'go ta Jarama'ko guda - oiñetan erkaldarak, asi dabela joaldia esan dau Miaja'k. Joaldior ondo ei dua gaiñera.

EZTABAIDEN BILDUR

Washington. — Epaikaritza aldaketa dala ta gora goraka doguz. Aldaketa ori ez deritxoe ondo aldun batzuk. erdiak inguruk eta lendakariak aldaketea dala ta eztabaidarik sortzerik ez dabela nai izango diñoe.

Aldaketa-zaleak leg-asmo oren alde asi dira zabalgundea egiten.

ALKAREKIN BURUKA

Paris. — Tunez'tik yatorkuzan izparak uri oretan italiar paxisten eta paxista-areriuen artean burukea izan dala dirauskue; Malaga artzea dala-ta sortu da eztabaida ta buruka ori.

Erroma'ko izparingiak egundokuak esaten dabez buruka ori dala-ta.

URIOLAK

Capstadt.—Africa'tik artu diran izpar batzuk diñoenez sekulakoik ezpiarik andiena egon da Incomat eta Umberuri ibayak ganezka egin dabelako. Iru mile baltz ito dira.

Lorenzo Marques erri nagusia ur-artean dago eta egazkiñak dabiz janariak eruaten.

LAU MILA LANGILE LAN BARIK

Bucarest. — Hungria ikatz miñarik andienetako lanak amaitu dira.

Ori dala-ta jau mila langile lan barik geratu dira.

KOMUNISTAK BATZAREAN

Moscu. — Komunisten alderdiak batzar nagusi berezia egingo dau datoren ilaren lenengotan Stalin buru dala.

TXAKUR AMORATUA ZAUNKAKA

Madrid.—Oraintsu jaso ditugun izparak ementxe lenago esandakoa sendotu baiño ez dute egiten: erkaldarak ez dieta utzi paxistarai Madrid-Valencia'ko bidea apurtzen.

Arganda ta Jarama'ko guda-oiñetan orain astebete bezelaxe daraite. Morata ezker-goi-aldean daude erkaldarak. Itxuraz, paxistarak ezin dute Jarama ibairik igaro; San Martin de la Vega aldetik ez ba-da... Emendik ere gaitz gaiñera.

Perales'etik Valencia'rako bideko sutunpak entzun al izan zuten atso.

Lengo astean bezelaxe lotu dira oraingoan ere Franco'ren moroiak. Arganda'ko zubia artu eziñik. Perales erri-ondoan ere alegiñak-alegin egin dituzte paxistarak Valencia'tik Madrid'erako bidea artu naiaz. Erasoka asi ziran, baiña, erasota gelditu.

Ori dala-ta, baiña, ezin esan inguruotan arixkurik ez dagonik, paxistar asaldariak beriz ere erasoka astekotan dira-ta, gogor astekotan gaiñera. Paxistarok bide - ertzen dirauten artean, arixku aundia dago. Arganda'ko zubia ere ezin esan ziur dagonik, egunoro supean degu-ta.

Mila batez zubi ortara urreratu diran izparkariak, paxistarak etengabean sutunpaka jardun aren ere, zubia erkaldaren mende dagola esan dute.

Inguru batzuetan gogor ekin diote Franco'ren moroiak. Guadarrama, Usera, Carabanchel, Parque del Oeste eta Madrid'en oraintsu arte ilabetetan bare lotu dira, baiña, olgetan-edo diarduten antza artu diegu.

Madrid inguruetako gudarien Agintari Nagusi Miaja kenerala izentatu dute. Aurerakada egiteko itxaropena dago ta, aurerakada bide, erkaldaren guda-oin artetako bideak lotutzekoa gaiñera.

INGELESEN GUDAROSTE TA IZKILU GEITZEAK

Londres.—Aldezletza arloazko autua izango dabe lege-etxean, eta politika alderdi guztietakoak parte artuko dabe eztabaidetan.

Zaintza arlo guztietan, gai eta guda -taldeak geitu egingo diraneko asmoa dago. Itxas guda zaingoan, ontzi geyago egingo dira. 1936'gn. urtean egiten asitako ontzien antzekoak, iru andi egingo ditue bariak. Zazpi kruzero diralakoak, lengoen gaiñera eta egazkin-eruatzaile bi.

Ontzi bariok 50 milioe librara elduko dira, ta lengo urteko dirutzea ortarako 12 milioe zan. Lengo gudontziak bariztau egingo dira, eta egazkiñak ugaritu.

Teritorial deritxau gudarostea be geitu egingo dabe eta oñezko guda -talde bari bi eratu.

Guzti orek gorabera, bigaren mailako guda-indarak be eraberitu egingo dira. Liburu zurijak dakarenez, Potencial de gerra dalakoa be antolatuko da.

INGLATERRA'KO GUDA-DIRUTZEAK

Londres.—Legetxean guda-arazoetako izentau dan dirutzearen bari azaldutean, Chamberlain'ek itzaldia egin eban.

Dirutza ori ainbestera zergaitik jaso aben azaldutea, ezer erez ta agiriena dala esan dau.

Azkenengo geratetik ona, guda-tresna eta gayak bari-bariak asmau eta egin bait-dira, oi ez bezelako lanak egin bearez, gastuak be berarizkoak izan bear.

Bost urtetarako 1.500 milioe libra izentau ziran aren, ez da naikoa, iñolaz be, dirutza ori. Asmo ori moztuago egin al izan esketiño, danen onerako litzake. Baiñan jazoerak okerak izan ezkero, dirutza ori lar dalakoan, ez litzake, ordea, naikoa be izango.

UKABILKETA

Zubiaga - Pinedo

Arambilet - Isasti

IGANDEZ ARATSALDEA ATSEGIÑEZ EMAN NAI DUANAK EUSKALDUNA'RA JOATEA NAIKOA DU

Pinedo - Zubiaga!! Ikusi genezaken ukabilketarik estukoena.

Aspaldion Pinedo ta Zubiaga aurez -aure ikusmin giñan eta ezin izan degu iñoiz min orixe baretu.

Zubiaga'k berak ere Pinedo'rekin nai zuan alkar neurtu. Pinedo'k ere berdin. Eta azkenez... Ona emen guzion egaria asetzeko bidean.

Oraintsu egun batzuk ukabilketa au eratu auretik, esku ta buruari eragiñaz, auxe esan zigun Zubiaga'k.

—Nik? Bai; Pinedo'rekin nai nuke neure burua neurtu, Pinedo'rekin. Gerora begira egon gabe, lenbailen jokatu nai ere.

"Onezkero ez naiz lotuko luzaroan ukabilketari, baiña esan dizutet zein dan nere egaririk biziena."

"Ez diot Pinedo'ri irabaziko ala galduko diodanik, baiña, nai aura beste ba-naizena agertu."

Orixe dana esan zigun gure mutilak. Adoretsu ta itxaropenez lotu da, bear ere bai-ta.

Ora or danon egaria aseta! Nork irabaziko du? Nork galdu?

Igande-aratsaldez uratuko diogu galderari azala.

卐 卐 卐

Igande-aratsaldez, Zubiaga ta Pinedo'z gaiñera, ba-ditugu beste morosko ederik ere.

Arambilet-Isasti! Joera zorotzenetakoa du Arambilet'ek; zorotza ta ikusgaria. Isasti'ren ukabilkadak beriz Euskalduna osoa-osoan dar-darka jartzeko aiñakoak ditugu.

Norbaitek matrailak bigun-asko dituala atera bearko du!

卐 卐 卐

Etzi igande - aratsaldez Euskalduna pelota-tokian! Ukabilketarik goren-gorenekoa! Sarerak merke!

Igandez Euskalduna'ra danok!!!

BRADDOCK JOE LOUIS'EN AURKA?

Paris.—Diotenez, aste ontantxe izenpetuko ei dute jokaldi ori burutzeko idazki-agiria.

Chicago'ko Stadio de Soldiers Field'en jokatuko dute ukabilketa. Noiz? Ez dakigu oraindik.



Itxura onetan laga dabe paxistak Madrid'eko Mendizabal izaldia.

¿Euzkadi-egazkiña, alakua?



Euzkadi-egazkiñaren aldezko zabalgundia gogor darabile gure Euzko [illegible] pelota-jokaldi ederak eraldu ebezan, eta bai diru pilo edera batu be. Datorran igandeko bariz, ukabilketa entzutetsubak eraldu dabez, eta txantelak leyotilatik eurez darniezalarik. Euzkalduna pelota-tokia gonburuaño beteta ikusiko dogula uste dogu. Aurera ba mutilak, Euzkadi egazkiñaren aldez, ta emen aurian dogun onen antzeko bat erosi al-ixaten dogun.

Bai ta [illegible] ere...

Debatik iru emakume ta bi aur bialdu.-Atxillotuak eta eraildakoak. Itziar - inguruetan.

Oraingoan Deba'tik bialdu dituzte. Geiago ere bialtzekotan ei-dira paxistar izengabekoak, baiña, oraingoz bost biaitze utsean lotu dira: iru emakume ta bi aur.

Lekeitio'ko guda oin ingurnetara eldu baiño len, oiñez bialdu zituzten. Lekunbe'ri koronelak lagundu zieu.

Euria euriaren gain eta guda-oiñetako sutunpa bide, lar-aldirik igaroak ei dira.

Pardel txiki batzuk baiño ez dituzte ekari.

Deba'n paxistarok iru erail dituztela esan dute. "Geiegi itz egin zutela-ta" besterik gabe, Ama Birjiña Pilare-egunez, Donostia'ra eraman irurak, Donostia'tik Oiartzun'era ta Oiartzun'en eman zieten azkena. Mariano da eraildako baten izena; abizenik ez dakigu. Catalina bestea; semea Bilbo'n dago mikelete taldean. Galdona Etxeberia'tar Eukeni bestea.

Emakumeok esan digutenez, atxilotu ere asko egin dituzte Deba'n.

Deba inguruetan erbestetar asko erail dituzte. Gabaz burutzen zituzten erailketak, bidetxabalean batzuk eta Itziar'ko iltokian besteak. Bide txabalean eman zieten azkena "Etxeberi" Mendaro'ko basetxekoai. Egun batzuren buruan, etxekoak erailketaren beri jakin eta erail lekura joan nai ba zuan, ezin yaten zuan iñondik ere gurarirrik lortu.

Urtarilako 27'garenez egazkiñak goitik eta gudontziak itxasotik suagaka ekin zioten eta Deba'n zeuden udazale guztiak anka-jokoari eman zioten.

Agita'tar Andoni endorea ta txaunburu jauna goratzeari lotu dira emakumeok. Euren lana bide bizi dirala gaur bizi diran asko ta Deba'n gelditu bialduko zituzten sendi asko gaiñeratu ziguten debarok.

Gaur egunez atxilotuta daudenak sei dira: Itziar'ko ziñegotzi aberzaleak eta baserritar batzuk. Ostontzeko atxilotua dirua bide lortu zuten azkatasuna.

Karabiñerobako sendiak Castilla'ra joan dira. Beste batzuk ere izan dituzte lagun.

Izugarizko multa edo izunak ezartzen zituzten paxistarak eta sari geiegikeriaren geiegikeriz askok ezin ordaindu ta gutxiagotu egiten zituzten.

Erian ez da lanik egiten. Jatekoa lortzeko txindirik ez duanak, jatetxe berezi batzuetara joan beara izaten dute. Jatetxeotan eralgitzen dana ostontzeko erritarak ordaindu bear izaten dute.

Etxe asko arakatu dituzte. Odriozola'tar Pirmin'enean esate baterako ez dute oratzik ere laga.

Egazkiñen suagadai beldur gogora diete Deba'n. Ondorenak-ondoren jaten bait dira.

Orixe esan digute Deba'tik paxistar anderak bialdu dituzten emakumeak.

Pozik ei dagoz orain Bizkaia'n eta erkertsu guziai.

EGUNON

Ibili ta ibili lortu bear izan dabe azkenean bere, Europa'ko eririk ospatsuenak, gure arteko matasa zital oneri amaya emoteko euren ustez zuzenen dan bidea aurkitzea.

Ila onen 20'gn. egunetik aurera, ez ei da España eta Euzkadi'ko lurraldetan burukan ekiteko asmoz, iñondiko gizonik sartuko, eta datoren ilaren 6'gn. eguneko gaubeko amabietatik asita bariz, ez ei yaku ezetariko gera tresnarik kanpotik elduko. Ez batzueri, ez besteeri; ez gobernuari, eta ezta gobernuaren kontra bizi bizi eta zital zital yagi diranei bere.

Onetara uste dabe, or gorago aitaturiko eri orek, triskantza izugarri aoneri amaya emotea. Ingalanda'k eta Frantzi'k lenen - lenengo egunetatik agertu izan eben iritxia da auxe, eta nekez izan baldin bada bere, iritxi onetara makurtu dira oraingoan aurki, beste eri guzti-guztiak, Portugal izan ezik beintzat.

Baleiteke, ez dogu guk au ukatzen, baleiteke gure arteko gerea arin eta guztiz amaitu al izateko biderik egokiena eta zuzenena orixe izatea; baña dana dala, gobernua eta beronen kontra aspaldian yagita dabiltzan gizonak neurri bardin-bardiñagaz neurtzea bere badala ori agertu bear dogu. Batzuekin eta besteekin neurri bardiña erabilteari bariz, ez deritxagu bideko.

¿España'ko eta Euzkadi'ko eriak eurentzako askatasun oso - osoarekin aukeratu izan zituen gobernu edo agintariak, eta agintari onen aurka sutsu ta adoretsu, ezetariko zuzentza argi barik, yagi zirean gizonak neurri bardiñaz neurtu bear ete dira ba?

Lapurak eta lapur ez direanak kide egitea legez izango litzake ori gero, ta, oretariko burubakokeririk ez dago, ezin egon leiteke iñungo eriren legeetan ontzat arturik. Lapura gaizkiña, ezin leiteke iñondik-iñora gizon zintzoarekin kidetu; au argi-argi dagola uste dogu.

Oretara ezkero, iñoizko denporan beste orenbeste yazo leiteke, ta, naspilzaleeri leku emoten baldin bayake oraingoan, ezin izango leukee eri oretako agintariak orduan euren alde, ezetariko legerik aitatu.

Eri batek bere borondatez, bere gurariz aukeratu dauan gobernuari bakar-bakarik lagundu bear yakola deritxagu, gobernu orek naspila zapaldu al izateko indarra izan dagian.

Auxe izango litzake urean, gure arteko naspila albait ariñen amaitzeko, Europa'ko eriak artu eta bete bearko leukeen erabagia. Egunokaz artu dabena baño artezagoa bere bai aurki.

ARUGAIN.

Lezaan'go ganbelua

OARRA

"Les Probers du Pays Basque" Barbier'en idaztian dozu irakuŕle, onen tajuko ipuintxo bat "Lezaan'go Ganbelua'rena" Markina inguruan deitzen yakon ipuin oŕen izenpuru "Mutiko zozoha" dozu Barbier'en idaztian. Euzko-eŕi guztietan ezaguna dogu ipuin ori; eŕi bakotxean baiña gauza bereiztxu batzuk dauz.

Lezaan baseŕian ama-seme bi bizi ei ziran. Semioi erdi-lotua edo ganbelua ei-zan. Eŕekaduak egitera bialtzea bururatu yakon amari.

Egun batez—"ua eguŕak aŕtu ta Markina'ra ta atzamaŕa ebagi yuat eta atzamaŕa ebagi yuat eta atzamaŕarentzat "pikie" (zaragi zaŕaren zatia) ekaŕi egidak"—esan eutson amak.

—Ondo dago ta ba-nua.

Alondikara zan eta pika zati bat eskatu eban eta zaragi zaŕ zatioi emon eutsen.

Buruaren puntan aŕtu pika zatioi ta ba-dua etxeruntz. Bidean baiña eguzki galdatan urtu yakon pika zatioi ta aŕpegi dana leŕotzaz eginda eldu zan etxera.

—Baiña mutil, ori olan ez zala ekaŕten ez ekian?—diñotso amak, ori bideko pozuetan beratuta ekaŕten dok.

—Uŕenguan olantxe ekaŕiko dot—

Eldu zan uŕenguoi, be, ta amak-ua eŕira ta ekaŕi egidak gatza-dirautso.

Baietz esan eta ba-dua.

Juan ba-zan juan zan eta alako batez etoŕi be ba-datoŕ oŕaitiño. Bidean idoro ebazan pozuetan sartzen eban gatzoi ta urtuta eldu zan etxera i mi-laun gatzegaz.

—Mutil baiña noz ikasiko dok? Ori burdian ekaŕten dok.

—Bai ama, uŕenguan burdian ekaŕiko dot.

卐 卐 卐

Jostoŕatzak palta izan yakozan beste bein amari ta semioi jostoŕatzetara bialdu eban.

—Ekaŕi dodaz ta ba-nua-esan eta ba-dua mutiloi burdi ta guzti. Erosi euzanian burdi gaiñean ipiñi jostoŕatzok eta biuregaz lotu ebazan.

Etxera zanean amak—ekaŕi dituk jostoŕatzok—diñotso.

—Bai ama burdien dira.

—Alpeŕik dok oŕekin—esan eban amak bere kolkorako ta adiñean saŕtu eiten aŕto etxean eukiteko asmua aŕtu eban.

卐 卐 卐

Alako baten oŕaitiño Elgoibar'era txaŕitara bialdu eban. Ontzakua aŕtu ta juan zan.

Zortzi ogerlekotan erosi eban txaŕitxu bat eta beste zortzirak poltsikuan ebazala ba-etoŕan txaŕia ondorik aŕtuta Aizte'n onuntz. Oŕ oŕen baten baiña Gaŕatzikira ezpatetara uazan mutilekin bat-egin eban.

—Nora zuaz gazteak.

—Gaŕotxikira—dirautsoe.

—Neu, be ba-nayatok orduan.

Zortzi ogerlekuan belaŕian lotu txaŕiari ta dira ta guzti bidean auŕera uxatu eban txaŕioi, etxera juango zalakuan eta ba-dua Gaŕotxiki'ra.

An gauzik geiena emon ondoren goizean etxera zan eta amari-txaŕia eldu da?

—Ez—dirautso amak—zer egin dok ba?

—Azten onuntz atzo iluntzean bialdu neban nik eta neu ezpatetara, Gaŕotzikira juan nintzan.

Orduan amak mutil a senean saŕtuko zan ustea, be, galdu eban eta berakin euki eban.

卐 卐 卐

Mutiloi sasoiko egin zan eta adiñean, be, soŕtu zala esan eikean.

—Andrea aŕtu beaŕ dok—dirautso amak egun batez—. Altzalei-azpikuan yagozak neska politak eta araxe eŕekadua egin beaŕ dok.

—Bai, juango, naz ama.

—Baiña an totuan moduan ez egon, neskei igurtziak eta e-·-.

—Bai, ama—esan ondoren badua. Altzalegi-azpikuan nesken ama orduantxe ilda eguan, eta Lezaan ara zanean negaŕez egozanaŕen igurtziak eta egiten asi yakuen Eskoba kirtena aŕtu eskuetan eta auŕean atera eben etxetik.

Lezaan'era zanean, amak.

—Eta egin dok eŕekaduoi.

—Bai ama, baiña eskoba kirtenagaz auŕean atera nabe etxetik. Ama il yakue ta negaŕez egon dira ta nik igurtziak egin dautsedaz, baiña...

—Olakorik ez dok egiten—dirautso amak—gorpuaren auŕean belaunbikotu ta gorpuaren onduan egoten dok urakin ontzia ta andixeik urbedeinkatua bota baiño. Beste baten ostera, be, bialdu eban eŕekaduagaz.

Juan zan eta Altzalegi-azpikoan txaŕi ilten ziarduen. Eldu zanean txaŕiaren auŕean belaunbikotu zan eta txaŕia euken malan galdakada urzikina eguan eta gizetzezko itxuzkiegaz galdakada ur zikiñoi txaŕiaren tripa-baŕura jaurti eban.

Egundokuak emon eta atara eben. Negaŕez etxera zan eta esan eutson amari jazo yakoz guztia.

—Txaŕia ilten danean, San Antonio'k gorde dagiala ta olako asko azteko izan zagizela urte on askotan esaten yakuek—diñotso amak.

Juan zan baŕiro be, 'a uŕengo juan zanean aitari zaldaŕa irazten idoro eban alabea.

—San Antonio'k gorde zagizala eta urte on askotan olakoxeak azteko izan zagizala—dirautsoe Lezaan'ek saŕtu ta beriala.

—Zer dakaŕ onek?—diadarka asi yakozan eta etxera bialdu eben.

Etxera zanean esan eutson amari zer eta zelan gertau yakon.

—Ua, baŕiro ta albait ariñen igartuko al-yatzu esan egiok.

—Bai ama olantxe egingo dot—esan eta ba-dua.

Eldu zan eta a eldu zaneko mats-podetan asita egozan.

Ikusi ebenekoxe—"albait ariñon igartuko al-yatzu"-esan eta ba-datoŕ atzera exera ta ba-diñotso amak.

—Zer esan dautsoek.

—Albait ariñen igartuko al-yatzu, olako gauza txaŕa.

—Zetan giarduen?

—Mats-podetan.

—Mats-podetan! Eta ori esan dautsoek? Ori ez dok baiña esaten.

Ua ta "fruturik ugarienak emongo al ditu ta etxe guztia aŕtuko al-dau" -esan egioek.

Tapa-tapa juan da baŕiren-baŕiz ta Altzalegi'n solo bastaŕeko laŕak ebaten ziarduen.

Ikusi euzan gure ganbeluak eta etxera juateka diadarka—"fruturik ugarienak emongo al-ditu, ta etxe gustia aŕtuko al-dau"—dirautsoe. Txaŕto esanak entzuteko asti barik etxera zan, baiña etxera-zanean izan eban nok jardun eta nok irakatsi.

卐 卐 卐

Alako batez amak—"alneŕik dok irekin; ua Santa Eugenia'ra ta antxe neskaren bat euk begiz jo egik"—esan eutson eŕekaduok be ganoraz ez euzala egin eta.

Santa Eugenia'ra orduko Aulesti'ko ardi ta auntzei begiak atara eutsezan, sakelak begiz bete ta ba-dua Santa Eugenia'ra.

Ara zanean berak eritxoen neska guztiei begi-jaurtzen egin eban aŕatsaldea.

—Zer dabil zikin txa-·· onek—iñotsen danak—lotsagalduko zoruoi geldi egongo az?— ¡Alako jaŕdunik!

Beti letz, begiak utsitu yakozanean etxera zan eta amak—¿iñoŕ begiz jo, al-dok?—esan eutson.

—Bai, baiña iñoŕk ez dausta berba onik ezan.

—Zer ba?—dirautso amak tentelkeriren bat egin izango eban-zalantzaza.

Zer egin eban esan eutsonean, amak berak andrea topetea on izango zala uste izan eban eta orixe egin eban.

Ziran eutson andragaia ta ezkondu ziran. Andra baŕjak baiña arin igaŕi eutson ganbelua zana ta gau batez"—kortara juan beaŕ dot-dirautso andreak.

—Itz, zuk iges-egingo zeuskida ta.

—Kortara juan biaŕ dot—baŕiro be andreak.

—Tira, ba—dirautso-eta tapa-tapa andreakin juan kortara ta igesik egin ez egion, soltau burtedeak eta geritik baztaŕia lotu eutson eta beste bartedea berak aŕtu ta eskatzera.

Andreak orduan soltau burtedea ta auntza lotu eutson buztaŕiari ta berak iges egin.

—"Egin dozu—iñotsan baŕutik ganbeluak—sasoia da ta guazen oera.

Edetik tiraka ekin eutson eta ba-uan gelaruntz tira eta tira.

Auntzak ate-egalen bat jo edo estopezuren bat egiten ebanean "beekeke" egiten eban.

—Nai beekeke nai ekeke onezkero emen beaŕ dogu ta auŕera—esaten eutson ganbeluak.

Ostera, be, auntzak "beekeke".

—Nai beekeke, nai ekeke onezkero emen beaŕ dogu ta auŕera.

Tira ta tira gelara eban eta oera jasoteko eldu eutsan eta adaŕei eldu, be.

—Ama—iñuan orduan—nere andreak bei okian adaŕik ba-zuan?

—Ixilik, ago, ixilik ori polita dok eta iñotsan amak.

Gero ostera, k··petik eldu eutson eta orduan.

—Ama, nere andreak okozpean ba-zuan bizaŕik?

—Ixilik egoteko, ixilik, ori polita dok eta.

Juan yakon ama zer ote ebanentz eta oe auŕean buztaŕi ta guzti auntza idoro eutson.

—Nun dok andrea—diñotso.

—Kortan.

—Kortan!

Andreak olantxe iges-egin eutsan.

Guda-oñetan, izkilubak bakaŕik eztira biaŕ izaten; baia urdaia zekin berotu be, eta gudari o··eik, oŕetarako bidiak jasian egiten dabez.

Gudaloro bateko ixardunak.

Lourdes'ko Ama ta artzaitxua

Gauŕko egunez irudimena Lapurdira doakit egaka an dauden euzko-anayakin Lourdes'era ikeŕalditxo bat egitera. Nuan ba, ta unetxo baten bederik oroitu dezadan euzkotaŕakin zer bait ikusia duen edesti atsegiña. Zubiru'taŕ Bernardetxo euzkotaŕ artzaitxoa (bere abizenak euzkotaŕ agertzen digu beintzat) bere aŕtaldea zaintzera egunero jun oi zan Masabielle izeneko arkaitzulo inguruetara. Lar gozo ta ugariak alde batetik gabe izeneko ibaia bestetik, toki atsegiñak eta ardientzako egokiak ziran. Bernardetxok aukeratzen zituenak. Sendi txiroa ta beartsua zan berea; bañan iudiak eman oi ditun aberastasun eta ugaritasunen ordez zeruko ogasunen jabe ziran bere gurasoak, kristau zintsoak eta elizkoiak. Bernardetxo ere ondo azita zeukaten eta munduko eskola asko ikasia ezpazan ere, zerurako bidea irakasten digun eskolan oso auŕeratua zebilen.

Soñeko edeŕtasuna aundia zuelarik, baŕukoa, biotzekoa zan Bernardetxo maitagaŕi azaltzen zuena. Ixila, esangiña, lotsatiya, garbiya, itz batean, ona. Artzaintza ta lugintza zan bere ogibidea ta bere gurasoena ta oŕegatik geyenean mendian zan Bernardetxo bere artaldea zaintzen. Zenbat naigabe ta atsekabe eraman bear neguan! Zenbat atsegin ta pozaldi udabeŕi ta udaran! Dana Jainkoari ta Zeruetako Eŕegiñari eskeintzen zion. Nolako otoi gozoak esan oi zizkion Zeruko Ama'ri batez ere! Aingeruak ere bekaitzez egongo ziran neskatx landertxo aren mintzo zerukoa aditzean!

Laister asi zan Zeruetako Ama artzaitxoaren zintzotasuna saritzen. Eluŕa baño zuriago jantzita eluŕezko gain-jantzia soñean zuela agertu zitzayon; geŕian lokaŕi urdiña zekaŕen bere on zuriak urezko aŕosaz apainduta zekarzkin. Gauz ederagorik! 1858 otsaila'ren 11'gn. eguna zan eta agertu zan tokia beŕiz Masabielle deritzan arkaitzarteko leize zulo bat. Antxe ikusi zan noraiñoko maitasuna zion Zeruko Eŕegiñak Ziburu'taŕ Bernardetxori. "Aitaren" ola ondo egiten dan eta "Agurtza" nola esaten dan ere berak erakutsi zion Bernardetxo'ri eskuan zekaŕen agurtzako aleak igaroaz. Andik auŕera Andre Miren'ek erakutsi bezela otoitz egiten asi zan. Beŕiz ere azaldu zitzayon Zeruko Ama, lenengoz bezin edeŕ ta txuri jantzita. Alan da guziz ere etsayaren maltzurkerin bat izango ote zan bilduŕez "Aitaren,,"ka asi zan, etsaya baldin ba zun uxatu nairik. Ori ikustean iŕipaŕzeriola azaldu zun aŕpegia ta oŕela neskatxaren bilduŕ eta kezkak aldendu zituen. Irugaŕenez agertu zitzayonean, amabost egunez mirari bera ikustera juteko esan zion artzaintxoari, baita Bernardetxok pozik bayezkoa eman da bete ere.

Gero maiz agertzen zitzayon eta bai bere eŕitaŕentzat, nai beste luditaŕ guzientzat ere, aolku onak ematen zizkion, bide oneratu zitezen eta Jaun'aren aixkide biurtu zitezen. Apaiz eta apezpikuentzat beŕiz, agindu bat eman zion: Bera agertu zan toki aŕtan bertan eta agerketa ayen oroitzarako eleiz bikain bat jasotzeko. Gero, oraindik jalotzeko zegon arkaitzpeko ituŕitik ura edan eta garbitzeko agindua eman zion. Mirari guziok ilabete ta erdiren baŕuan egin zituen. Andra Maria'ren Iragarkunde egunean (epaila'ren 25'an) Bernardetxo'k ··ldetu zion: Ainbeste mirariren egilea nor izan dan galdetzen badidate, zer esango diet? Nor zera ba zu?

Ta Zeruetako Eŕegiñak, eskuak biotz gañean baturik eta begiak goruntz jaso-ta, erantzun zion. "Sorkunde Eŕugabea naiz ni"; eta zeruruntz abiyatu eta ostendu zan. Orduntxe asi ziran Lourdes'erako ibildeunak. Lasteŕ ontzat eman zituzten Eŕoma'ko Aita Santuak Andra Mari eta Bernardetxo artzayaren agerketa izketak eta berealaxe asi ziran Andre Maria'ren aginduak betetzen ere. Noŕk eztaki Lourdes'ko beŕi? Zeñek ez ditu entzun ango mirari aŕigaŕiak? Bañan ni, nere asmoa laburki ta gaizki bederik bete ondoren itzuli nadin nere anayekin Lapurdi'rontz eta oyek beren etxietan utzirik iritxi nadin egaka (jun naizen bezela) nere txokora.

Jaunak naiko al du gentza lenbait len guri ematea Gipuzko-Napaŕo zeaŕ oñez Lourdes'eratu gaitezen euzko-guziok otoi egitera, Ama'ri mesedeak eskatzera.

PAKE-NAI.

MUETA GUSTIETAKO KRISTALAK

GORBEA Y C.ía

41'gn. Alameda de San Mamés txaidian

11447 Uŕutizkiña

BILBAO'KO izparringijak diñuena

"Euzkadi"

"Religión e Iglesia" ixenpurututen dau lenengo idazlana. Eta idazlanaren guna bai -litzan, Arana-Goiri'taŕ Sabin Irakaslia'ren oldozkun bat iaraŕten dau kulatz-aŕtian.

Ona Irakaslia'ren leŕuetatik ataraten doguna:

"Uskurtzea ta Elexea banan ezagututen ba doguz, urtzigetasunetik gaizkatu geinke geure abeŕija, ta Elexea be geure abeŕijan gaizkatu geinke. Ordez, baŕiz, Elexea gaizkatu biaŕ dogula-ta ezetariko zur··usun barik edozein bidetatik ibilŕen ··siko ba'gintzaz, asi, Uskurtzeaz ··ztuteko aŕiskuan jaŕiko gintzakez, ··a geure abeŕija Goikua'gandik ··unduta dala umezuftz geratuteko be."

Sabin Irakasle andijak leŕuok idatzi ixan ebazanian, Euzkadi euzkotaŕen abeŕijari aŕetaz eta arduratsu begiratuten eutsala, argi ikusten da.

Uskurtzea ta Elexea buruz España'ko katolikuen aŕtian jazoten dan jazokun ne gaŕgaŕija, ondo baño obeto ezaguten eban, ba, Sabin'ak. Eta españaŕak uleŕtu ezin daben bide oŕi jaŕaituz euzkotaŕak be, argi-izpi bako bide berberatatik ibilŕen asita galduko ete-ziraneko bilduŕak ikutu eutsan Irakaslia'ri. Eta bilduŕ ori ixan zan Sabin'i leŕo oŕeik idazteko idazkoŕtza eskuban jaŕi ixan eutsana.

"Tierra Vasca"

"Hombre prevenido..." ixenpurututen dau lenengo zeŕendako idazla.

Zer jazoko be auŕetik gertauta egotiari, zurtasuna deritxo. Areyua bixirik aurkitzen dan biŕaŕtian, baŕiz, aŕiskutik azkatu barik aurkitzen gara.

Ondo gertauta aurkitzen danari, estuvaldirik aundijenian be, ikara gitxijago soŕtuko yako auŕetik gertau barik daguenari baño.

Jazaŕpenen bilduŕik ez dogu ixan biaŕ baña gixon kementsuben eta bulaŕtsuben adoria, jazaŕpenak koldaŕtu barik eruaten jakiŕian dago-ta.

Oraintxe da garaya areik lengo esanak eta adore-oyuak egiztut·· imiñeko. Zorijonez, baña, eŕi-aldezlien aŕtian, gurendearen itxaropena sendo aurkitzen dalakua agertuten dau, idazliak. Alan be baña, esakunak diñuan lez, ondo gertetan dan gixon biren aldiña agertuten dau. Eta aldi estu oneŕan egin biaŕ dana be, orixe ei-da: ondo gertauta egon.

"Lan Deya"

"Fases sociales. El gran culpable." Leŕo oneik dira "Lan-Deya"k ixenpurutzat idatzi dauzank.

Eta eŕudun-eŕuduntzat agertuten dauana, kistaŕ-era gustijetatik uŕunduta txiruen eŕuki barik jauregi aundijetan bixi diran eukitsubak dira.

Eukitsuben kistaŕtasunik ezak soŕtu dauzanak dirala diño langilien aŕtian soŕtu diran bazpatzak eta alderdijak. Langilien aŕtian soŕtu ixan diran alderdijak be, baña, era askotakuak ei-dira.

Kistaŕ-bidiari jaŕaiubaz gixaŕtiaren zorijona loŕtu gura dauana, baña, Euzko Langilien Alkaŕtasuna dala agertuten dau, benetako askaltzaletasuna edo demokrazija Euzko-Langilien araudijan aurkitzen dala-ta.

"Euzkadi Roja"

"Una jornada dolorosa" ixenpurututen dau lenengo idazlana.

Idazlan onetan agertuten dauan bijotz miña, egubazten aŕatsaldian uste barik erijotzea idoro ixan eben socialista gastiak soŕtu ixan dautsoena da.

Jazokun ori zer eta zelakua ixan zan be, beste leku baten argiŕaltzen diran izpaŕetan idoroten da.

"El Liberal"

"Una posición. La del Comité Central Socialista de Euzkadi." Olantxe ixenpurututen dau lenengo zeŕenda bijetako idazlana.

Eta Gixaŕtekeri zalien Batzorde Nagusijak argiŕaldu ixan daben agirijari oratuten dautsa, egin ixan daben lana onurakoŕa dala agertuteko.

An aŕtu ixan ebezan asmuak beriala onetsiŕa ikusiko dabezelakua diño.

Euzkadi'n orain aŕte be bijoŕkerirk ez dala ezagutu ixan diño. Baña asmo baŕijoik bide dirala egingo dan eralguntzea, enparau gustijentzako be, ereduba ixango dala.

"El Noticiero Bilbaino"

Gipuzko ta Araba'ko izpaŕak idaztian, eŕi-aldezlien suagak Markina'ko gud-·ñtik beste aldekuen sutauts-tokija edo polvoriña ondatu ixan dabela esaten dausku.

Otxandian··'bidea'tik be, beste aldeko areyua, suaga-bidez zigoŕtau ixan ei-eben eta gogoŕtxu zigoŕtau be.

Orduña'ko guda-oñian aurkitzen diran e··-aldezliak be itxaŕik dagozala diño. Beste aldeko paxiotaŕak gudari-aldeketea ixan ei-eben. Eta aldaketa ori egiŕen ebiltzan unia zäinduta, gure mutilak, dubadoska asi ei-yakezan. Eta dunbadok bide zirala, kakuaren plaztadara gaztaña-olkotzak lez, gixonk luŕera jausten ei ziran.

Gudaldiko gaztaña-lokotzak, gixonak dira ixan be. Lenengo gudea asmau ixan ebana, ¡nun aurkitzen ete-da!...

"C. N. T."

Izpaŕingi onek, gauŕ be, guda-atziari deragitso. Gud-·tzian zeozer ikusten dauala dirudi, atz· ori beriala garbiŕu biaŕ dala diño-ta.

Guda onek alde on bat ixan dabela be agertu gura dau: paxiotaŕen auŕka dagozan alderdi gustijen alkaŕtasuna.

Alkaŕtze onek ez ei-dautse ikututen, baña alderdi bakotxaren eŕiketa-·ra berezijei. Bakotxak bakotxaren eretxijak aldeztutia ta sendotutia, bakotxaren gauzea dala diño.

Beste erako alkaŕtzia, paxiotaŕak betuteko egin dana ei-da. Eta paxiotaŕen betiko betutia loŕtuteko, askaltzale gustijen laguntasuna biaŕ ei da, ixan be.

Begoña'n euzko gudari siñopa bat geiago

Astelenian, Urberuaga Markina guda oñian, paxista ankeŕen izkilu oiñez; utsizun emeretzi uŕte zituala, bere bizia, iru ilabete Euzkadi aldez jokatuta Oyo Aretxea'taŕ Alberta'k begoñataŕ abeŕtzale zintzo ta, gasteak (G. B.)

Bere gorputz goŕdin ila, gauberako ekaŕi zuten eta, Jel Batzoki'ko idazkaritza aretuan ··irian egundu zan egun guztian, ainbat ostek ikeŕtu zuan bera askori begiak buztita beŕtatik ateratzen ikusi genduzan iain ezaguna gaste zintzo eta, maite maitea omen zan auzo onetan! ez biaŕ au geŕtaturik Jel Batzoki'ko euzko-ikuŕiña beltzetz egondu zan egun gustian beŕtako bazkidea zan Alberta gixaxua.

Bere gorputz ilaŕen eramatia asteaskenez aŕatzaldeko seiretan izan duzan eta, uri guztiak lagundu zion obitokiraño.

Bere goŕputz eraman zuten, bere uŕengo lau lagunek, eta, euzko-ikuŕiñarekin estalduba, bere eŕtzetan Padura'ko gudaloroko talde "piquete" bat zun. Au ikusi giñuzan bere Otxandiano gudaloroko Laŕañaga'taŕ Koldobika (comandantea), Lautza (kapitana), Egaña (tenientia).

Ondoren Alberta zanaren aita ta anai tamaltsubak Oŕbea'taŕ Perderika, Arana'taŕ Imanol apaizak, aita Andoni kalmendaŕ Aba, Begoña'ko U. B. B.'ko lendakari Laŕañaga'taŕ Joseba, Batzoki'ko lendakari dan Las Fuentes'taŕ Imanol.

Baita ere oroigaŕitzat buruztun edeŕ bat ere bazun.

Laguntzen diegu atsegabe mingaŕi onetan, beren guraso anai aŕebak, Jel Batzokiak eta, Otxandiano gudaloroko euzko-gudari bulaŕtsuak, eta zuk irakuŕle otoiz bere gogo aldez.

AIXERIXA.

Bidezkua

Uskuŕtza zelan sortu zan? Ez dakigu. ¿Antxiña zergatik ziran, eta zergatik dira gauŕ uskuŕtzale antxiñako eŕi zaaŕak? Endaz; beste oñaŕirik ez dogu ezagutzen.

Len gixonari (primitivo) ezik, orainguari be uskuŕtzaletasunaren zergatija eskatzen be dautsogu, erantzun bardiña emongo dausku: Izadiari begiratzea naikua dala, adimen, edo izaki andi eta leenagoko baten ixatia biaŕekua dala autortzeko. Izaki ori, izadiako gauza oroen egilea dala eta abar.

Zer dogu beraz uskuŕtza? Adimen andi ori azagutzea, izaki gorengo ori gurtzea. Besterik ezerbez.

Asko, uskuŕtza burua markurtuaz besoak jasotia, eta sorginkeri batzuk egiŕia dalakuan dagoz. Oŕeik azaleko txaplatak baño ez dira. Uskuŕtza ezagutza dala esana dogu.

Auxe esan leike baña: Jaungoikorik ez dogu ikusi; ez da ikuturik egin be.

Ori ez jakiña baño ez da. Amaikatxu gauza ba dagoz, gure begijai zeŕ-egin andirik emon ezaŕen.

Jaungoikorik, gogo-utsa dalako ez dogu ikusten.

Tximits-arijan ziaŕ duan tximista iñork ikusten al dau? Tximistarik ez dagorik iñork ez dau esango baña, argija pixiuta ikusten daunian. Tximistarik (electricidad" ez dogu ikusi. Bai baña bere egintzak bere ondorenak (efectos).

Jaungoikua be bardin. Ez dogu ikusten. Egintzak ordea bere ixatia ojuka agertzen dausku.

Bidez jokatzen ba dogu, bata siñestu ezkero, bestia be bardin.

Uskuŕtza beraz bidezkua dogu.

Laŕea'taŕ Jon.



GUDARI TALDE BI.

ATZERRIKO IZPARRAK

Paxisten ordezkariak Rumania'tik bialdu dagiezala eskatzen dabe ango izparringiak

90.000 toneladako itxasontzia egingo dabe Inglaterra'n. - Españar paxisten egazkin bat lurreratu Paris'en. - Alemanak España'n. - "Diane" aizta bostkiak ostu egingo ete dituez? - Mexikarrak Garcia Lorca goratuten. - Portugal'en egoeria dala-ta. - Beste izparrak.

90.000 TONELADAKO ITXASONTZIA EGINGO DABE INGELATEŔA'N

Londres.—Walkers Whinstime ontzi olotan "Jorge V" izena izango dauan munduko itxasontzirik aundienari "kiḷea" ipiñi dautsoe.

Itxasontzi oŕek, amaitu daitenean itxasoko eŕi oso bat dala emongo dau. 90.000 toneladakua izango da, "Queen Mary" baiño 20.000 tonelada geiago. 250.000 H. P. indaŕa izango dau ta bertan izango diran langile ta bertan osterea dagienen aŕtean eŕi oso bat beteko leuke.

1938'gn. uretaratuko dabe, baiña 1939' gaŕenen azkenak arte ez dabe amaituko; iru urteko epea dabe itxasontzioi guztiz amaitzeko.

BELGIKA'KO IKASLEAK ESPAÑAŔ EŔI ALDEZLIEN ALDE

Bruselas.—Ikasle Batza guztien ordezkarien aŕtean batzorde bat eralduten diñardue Belgika'ko ikasleak. Paxisten aurka diñarduen gudarien alde eskean dirua batu ta al dagienez gudarioi laguntzea izango da batzorde oŕen eginkizuna.

PAXISTEN ORDEZKARIAK RUMANIA'TIK BIALDU DAGIEZALA ESKATZEN DABE ANGO IZPAŔINGIAK

Bucarest.—Franco'ren alde gudan ziñardu-ta il ziranen gorpu-loŕetan izan ziran ordezkaria dirala ta zer esan asko sortu da ango izpaŕingietan.

Gorpu-loŕetan ordezkari jaritziz jantzita izan ziran eta paxisten arauz aguŕtu ebezan ilok Italia'ko ta Alemania'ko ordezkariak.

Eŕi baŕuko arazuetan saŕtu diralr ordezkariok eta ango ekandunak auziaz goŕoto ta buŕuka-bideak sortu dabezala diñue izpaŕingiak.

Eskuma-eskumaŕ diran izpaŕingi batzuk ordezkarion lotsagaldukakeria, atondu guraz dabiltz. Beste izpaŕingi guztiak asaŕe bizitan doguz baiña ta ordezkari oŕeik ordezkari-maiḷatik kendu dagiezala eskatzen dabe.

ESPAÑAŔ EŔKAL ALDE

New York.—España'ko paxistak aurkako Gastedi bat iker batzuk egiten izan dira ta ondoren edeŕak izan dituzte ikeŕok. Diruz eta gogoz, guztira lagunduko diote amerikaŕak España'ko Eŕkala'ri.

Delegauak Canada zeaŕ ere ibili dira ta emakuntzak-emakuntza, miloi bat dolar baiño geiago batu dituzte.

"DIANE" AIZTA BOSTKIAK OSTU EGINGO OTE DITUZTE?

New York.—Zapaŕada aundia dagite izpaŕingiak Diane boski (bost) aŕebak dirala-ta.

"Gangster"-talde batek izenpetu gabeko eskutitz bat bialdu diela aŕeba oŕei zabal du da orain. Diru pila edeŕen bat ez badiete ematen, eurak, bost aŕebak ostu ta eraman egingo dituztela esan diete eskutitzan bost aŕebai "gangster"-taldekoak.

ESPAÑAŔ PAXISTAŔEN EGAZKIN BAT LUŔERATU PARIS'EN

Paris.—Uri nagusi ontako egazki[illegible]-zelai batera egazkin bat jetxi da ta baŕukoak españaŕ paxistaz asaldarietako militar batzuk ziran.

"Gendarmeak" atxilotu egin zituzten.

PORTUGAL DALA TA

Paris.—"L'Echo de Paris" izpaŕingiak dionez, Portugal'ek oraindik ere buru-gogoŕ jokatzen ba'du ta bereari bakaŕik eutsi, beŕiz ere lotazilako Frantzia ta Inglateŕa'ren ateko arazoa sortuko da eta Mediteŕaneo'n bakoitzak berea jaso-beaŕa ten ba-litzake. Bear-beaŕeko bait'da bakoitza bere etxera saŕtuta Frantzia'k eta Inglateŕa'k Mediteŕaneotan daukaten luŕealdeai bake-bakean uztea.

EGAZKIÑEN UTS-EGITEA (?)

Londres. — Gibraltar'dik "Daily Express"eri igoŕi dautsoen izpaŕak diñuenez, paxista-ekazkiñak eŕkaldaŕak ziralakuan ingelateŕaŕ guda-ontzi bi suagetu dabezalako Salamanca'ko paxista buruak euron samiña adierazo dautse Ingelateŕa'ko Gobernua'ri. Cartagena'tik atera ziran eŕi-aldezlien guda-ontzi etsi ei-ebazan egazkinlariak.

IRAKASLE KATALANDAŔAK

Valencia.—Madrid aldetik irakasle katalan aldrea eldu da. Uri artan, agindariei idazki bat emotera joan ziran, Madrid paxistekandik oŕen bikain eta sendo jagon dabenei euren aguŕa egin eta eskeŕ ona agertuaz.

Miaja generalak egin eutsen abegi onaz sinistu eziñik dagoz, pozaren pozaz. Arek dauan lan astun eta etenbakoa gorabera, eurekin autualditxoa izan ebalako.

Eurek emon eutsen idazkiaren truke lez, beste oaŕ bat aŕtu eben irakasleok Madrid'en aldezle azkaŕak eskeñi eutsena.

ALEMANAK LUŔALDE BILA

Ginebra.—"Journal des Nations" egunkariak diñonez, alemanak lau itxas babesleku ditue españaŕ agindupeko Maine'koetan, eta beste bi Canarias'etan, Palmas eta Santa Cruz'en. Ifni'n be, beste bi ditue.

Maŕuekotan, pantzetaŕen aurka egundeko zabalgunde ta zinkatzeak darabilez nazitaŕak, zapaŕada ta naspilak sortu nairik eŕitaŕen aŕtean.

Frantze'ren kaltezko propaganda ori, Itali'k eta Alemani'k lagunduta eta ordainduta egiten ei dabe. Buru egiten dau norbaitek betiro diardu estadu paxista oŕekin aŕtu-emonetan.

Juan March dirutsuaren Oran'go moŕoiak emon daruatso paxisten alderdi oŕi, aldizka, zabalkunde ortarako beaŕ daben dirua.

SUIZA TA ESPAÑA'REN GAI-AŔTUEMONAK

Ginebra.—Asta batzuk lanean emon ondoren, salerosketa arloan egiunea egiteko erabagi aŕtu dabe España ta Suiza'ko batzordeak. Itunben ori onuragaŕia izango da estadu biontzat.

Itunben oŕen arabera, España'k gauza oneik bialdu al izango ditu Suiza'ra, Ardao, gaimel edo orio, uŕak, uŕesagaŕ eta lugintzako gai ugari.

Idazki ta oaŕak alkaŕi emonaz, alde bietakoen lan oŕek burutu ditue, eta Bernald Stucky, suizaŕ Eŕbeste Salerosketa ordezkaŕia eta Fabra Rivas, españaŕa, izan dira arduradun nagusiak.

PAXISTAK ERAIL EBEN GARCIA LORCA'REN OROI GALUA EGINGO DAUTSOE

Mexico. — Paxistak erail eben García Lorca' taŕ Perderika'ren omenez oroigalu edeŕ bat egitea erabagi dabe ta erabagioi pozik onartu dabe.

Oroi-galu edo monumentu ori eŕiak arpide baten bidez egingo dau. Eta uribuŕuko tokirik edeŕ eta ikusgaŕienetarikoan egingo ei dabe.

RUMANIA'N ASAŔE

Bucarest.—Italia'ko ta Alemania'ko ordezkariak Franco'ren alde gudatuten il ziran "Guardia de Hieŕro"ko gudari bien gorpu-loŕetan izan ziralako asaŕe dakusguz ango izpaŕingiak.

"La Epoca"'n Gregorio Filipesco eskumaldekoak auxe idatzi dau: "Auŕez oldoztuta sortzen dan asaŕebiderik ezin onartu daike azke dan eŕiak."

Euzko basetxera begira

¿Nora bide orretatik?

Euzkadi'ko basetxe txuri politian dago geure abenda, ele eta beste oŕura edeŕ gustijen iŕuŕi garbija. bertan dago ludi gustijak egiztuta daukan abendarik garbi eta zeŕenen ziaska eta oñaŕija. Basetxe txuri onetatik urten dira ludi gustija aŕituta itxi daben gixon jakintsu eta trebjak, eta ori bertoko seme gustijok dakigu, baña ori jakiñaŕen basetxe oŕetako seme-alaba gitxik jaŕaŕu nai-dogu geure guraso aguŕgaŕijen magalpian, ez'dogu geure guraso maitian lez luŕagaz buŕukarik egin-nai, gustijok, edo beintzat, geyenok aŕtuten dogu beste bide bat geure ludiko urte labuŕak igaroteko.

Egija da, gauŕko basetxietan ez'dagola bertoko seme alaba gustijentzako biaŕ dan laña luŕ edo lan, eta oŕexe gatik urten biaŕ ixan dogu askok geure gurasoen ondotik, batzubek, otsein (oso gitxi), beste batzubek, oletara eta abaŕ.

Onen seme edo alabaren bere gurasoen ondotik alde-egitiak, ¡zeinbat aldakuntza iŕun ekaŕi dituz geure baseŕi kutunera! ¡Zeinbat sendiko galdu dira euren aldi gustirako, iru edo lau laueŕleko sakelera tutiagatik!

Geure baseŕiko seme alaba gustijak bertatik alde egin barik euren gurasoen ondoan edo asko uŕindu barik jaŕaŕu dayen egin biaŕ dogu lan, lagundubaz basetxe eta lugintzari, eŕastasun geyago emonagaz euren lan gogoŕak egin aŕen, apuŕtxu bat obeto bixi ixan daŕezan.

Basetxeko seme-alabak euren gurasoen ondotik urtetiak askok uste daben baño gaŕantzi andijagua dauko geure abeŕirako. Geure basetxetik urtetan dabenian bertoko seme-alabatxubak oŕ go-ldijan dabiltzan uso txuritxubak dirudije, baña andik aldi gitxi baŕu, aŕtuten dabe aldakuntza andija euren itzkuntza, soñeko eta beste oŕura loi askotan. ¡Tamalgaŕija!

Geure basetxia sendatu eta bertako seme-alaba gustijak bertatik urten ez-egitea lortuten ba'dogu, garaiŕzarik andiiena lortu dogu, bada ori egiñagaz egingo dogu oraiñaŕte egin dogunik lanik edeŕena geure basetxe txuri, abenda edeŕ, ele garbi, oŕura argi eta geure abeŕijaren azkatasunaren aldez.



[illegible]ilbao'ko Kirol[illegible] [illegible]azkuna'k [illegible]orbea mendian ja soriko aterpian.

Frantzetarrak batzarrean

Erabagi gogorrak artu ditue

Paris.—Gauŕ goixian batun dira batzaŕian ministruak. Erkal lendakarija ixan eben maiburu.

Delbos Atzeŕi'ko gora-beratako arduradunak, azal du eutsezan bere lagunai, "Ezetan ez Sartzeko" batzaŕaren azkenengo erabagien baŕi gustijak. Gero lendakari jaunaren ixenpera eruan ebazan, lage gai bi. Agiri onetako bat España'ra, Españaŕak ixan ez da zuan nai dabenei bidja galazoteko ixan da. Bestia pasaportien ikustiari yuakana ixan da. Agiri onetan eskatuten da, España'ra juan nai dabenak agiri berezia atara biaŕko dabe.

Agiri bijak ontzat aŕtun ebezan ministro gustijak. Baita agiri oneri yagokazan ondorengo agintza gustijak be, ontzat aŕtun ziran.

LAGUNTZA EMOTEN

Londres.—Barcelona'n komite bat sortu da emakume ta umiai esnia zabaltzeko. Dubarik emongo dabe.

Españar gudako izparrak-eta

Jarama'ko burrukaldian paxistak atzerantz

Errizaleak baratz baño sendo, aurrerakadak egiten. - Ez Arganda ez Perales ez ditue artu al izan paxistak. - Jardun onuratsuak. - Usera ta Carabanchel'en geldi. - Andujar bonbaz bete eben Queipo'ren egazkiñak, ume ta ama asko illaz.

GENERALITAT'EKO BATZAŔA

Barcelona.—Arañegun ainbat ordu igaro ondoren atzeratuta geratu zan Generalitat'eko batzaŕa, atzo jaŕaŕu zan.

Burukideak azterka zitubezan, Valencia'ko batzaŕ gora-bera gustijak, eta gaŕantzi aundiko erabagijak artu ebezan, Gudiari buruz, baŕa guda-atzeko biaŕ-biaŕeko arazoetaz be.

Valencia'ko Jaurlaritzaz bat-batian geratu dirala esan giñei, agintza bakaŕari dagokion eskabideaz.

JARAMA'KO BUŔUKALDIA

Madrid.—Guda-izpaŕak diñuenez, Jarama ingurutan eŕi-alezliak auŕerakadatan luŕalde egokijak artu ebezan.

Baña oŕez ganera, ainbat orduan gogoŕ gudatu ostian eŕi-aldezlien taldiak garaitz aundijak lortu ebezan.

Gudarijak agintarijan aginduak lotsaz bete ta disipliñarik aundijez jardun ziran.

Buŕukia gogoŕa baño gogoŕagoa ixan zan, eta buŕukaldi onetan, paxistak ezin eutsi eben, eta atze-atzeka lasteŕ jaurti ebazan.

Jarama ingiruko alderdi batzutan eŕi-aldezlian indaŕak iru aneurkin bide auŕeratu ebezan.

EŔIZALEAK, BARATZ ETA SENDO AUŔERANTZ

Madrid. — Jarama ibaŕak zeaŕ dagozan bideak menderatzekotan joaldi bi asi dabez erkaldaŕak. Ibai oŕen egoaldean asi eben lenengo joaldia eta gerotxoago beste gudaroste-sail batek Marañosa'rantz egitekotan beste eraso bat asi eban. Asaldariok Perales de Tajuna artu nai leuke, ortitxeik dua Valencia'rako bidea-ta.

Miaja gudalburuak gauzak aldatu dirala ta erasoei eusten naiko zeregin dabela orain paxistak esan dausku. Goraipenik bat-batera ezin lortu daike, baiña astiro duazenaŕen atzera egiteko kezkarik bage duaz erkaldaŕak.

Erkaldaŕak aldatu dabez lengo asmuak ete Madrid'go sorkaldean paxistei sartzen ez yakue laketuko. Alde oŕetantxe doguz Guadalajara'ko ta Valencia'rako bide-kurutzak.

Erkaldaŕ Guda-Agintari Nagusiak paxistok eraso baŕiren bat asteko asmotan dagozala uste dabe. Eraso ori Guadalajara'ko probintziko Ipar-Sorkaldean ezango da, ausago ta Guadalajara'ko ta Cuenca'rako bide-kurutza euren gandutzekotan dagoz joaldi oŕen-bidez.

Frente Popular'en batuta dagozan alderdi guztiak bere Agindupean artu dauz Valencia'ko Gobernua'k eta bost kintatako gizonak gudaritu dauz.

Ciudad Universitaria'n bizi-bizi gudatuten yakuz alderdi biok. Baita Parque del Oeste'n, be, adoretsu diñardue ta asaldarien erasoak-eraso, atzerarik ez dabe egiten.

ALEGIÑAK ALPERIK

Madrid. — Valencia'rantzeko bidea artu gurarik paxistak egin dituen alegiñak uts emon dautse. Arganda ta Jarama aldean joan dan asteko egoera bardiña dabe. Morata'ren sartaldean dagoz eŕizalien gudoñak

Arganda'ko zubia artu ezin izan eben antzera lengoan, oraingoan Perales ondoan Valencia'rako bidea artutea alpeŕeko alegin zan dabe. Izpaŕkriak euren begiz ikusi dabelako diñogu izpaŕ ori.

Jarama aldean naikoa geldi egon dira. Aspaldion geldi egin diran leku batzuetan gogoŕ joten asi dira paxistak.

Guadarrama, Usera, Carabanchel, Parque del Oeste ta Ciudad Universitaria inguruetan dira eraumtziok, bañan eŕizaleak Jarama aldera guztik jo ez dagien, bananduta euki erazteko dira joaldi oŕek.

Madrid'eko guda-alderdi guztietako buru nausi Miaja izentau dabe, ta guda-oin ori ta beste guztiak aran bateratuaz jardungo dabela uste da.

EGO ALDEAN

Andujar. — Villar del Río'rantz dagie erkaldaŕak, eta paxistea amore emonazten dautse.

Lopera'n sei gudari paxisten su-leŕorano sartu ziran, eta an egozan apuŕak aldra aundiren bat ganera etorkiela uste izanik, igesari emon eutsen.

CARDENAL KENERALAK DIÑONA

Madrid. — Centro aldeko guda-oñetan ezala gorabera andirik, inoan. Miaja gudoñak ikusten joan zala.

Gudari eŕizaleak adorez diardue, ta paxistak euroi eutsi eziñik estu dagoz.

MADRID ARTUTEKO ZAZPI ALEGIÑAK

Moscu.—"Pravda" izpaŕingiaren ordezkariak, Madrid'erantz paxistak egin daben azkenengo erasoaz diardu.

Jarama aldeko erasoa izentauten dau, ta Malaga paxistak artu ondoren, bizkoŕaldia izan eben, eta eŕizaleak estulaŕirik jasan eben, Madrid aldean bertan.

Artu-emonak eta orniketa-bideak kendu nairik Valencia'rako bidea artuteko neke ta lor andiak egin ditue paxistak, uste ta ames gozoz, baña eraso bakoitzean erantzun gogoŕagoa emoten eutsen erkaldaŕ guda-salak-eta, saŕi baño saŕiago auŕera ezezik atzerantz egin beaŕa izan dabe matxiñadariak.

Erkal españaŕaren taldeak auŕerakadea egin gurarik asi dira oraingoan.

Miaja gudalburua goraldu daroa, ta mutil sendoen auŕe beronek dagian lau bikaña agertu. Gudaŕiak be esangin eta bioztun dagozala esan dau.

JARDUN GOGOŔ ETA ONURATSUAK

Madrid. — Eguazten gabetik asi ziran eŕizale gudariak erasoa gertuketan, bultzaoa gogoŕen bat egiteko asmoz, Jarama aldean.

Geizaldeko orduetan eizako egazkin erkaldaŕak guda-oñak zear ibilten asi ziran, arerioak zer egien ikusiaz eta oartuaz ganera, paxista aldraj su egiteko.

Agindutako lanbidea burutu ondoren euren seira itzuli ziran, eta baŕiren baŕi urten ziran bonbardeoko amabi egazkin erkaldar. Paxisten alderdiak zear egatu ziran eta etsaie suaga ugari jaurti eutsezan.

Egazkiñaen jardunaz batean, artileria ren ekitaldia izan zan, eta paxistei suaga asko zuzendu eutsezan.

Kalte ugari jasan eben paxistak ekitaldi ori zala-ta, eta parapetoetan triskantza andiak egin eutsezan.

Ondoren, oñezko gudasail eŕizaliak, Guda-Agintaritza buruen esanak betatuaz jardunean asi zan; paxisten toki bat ingu-ratu gurarik asi ziran, eta eguerdi auŕerako toki aura, mende artu eben eŕizaleak.

Goiz guztian jardun eben arerioen lekuak joaldi gogoŕez zigortauten, eta baruan artute[illegible] eran, bañan ezker aldetik gartsuago [illegible]; alde ortako etsaiak asko ikusi [illegible] izan eben, eta nekatuta eta auldu [illegible] ziran.

Toki jakin[illegible]tera baratz eta geldiro atze-atzekoa [illegible] nai dira paxistak, gero ekiñaldi alagal[illegible]oz jo ta atsi egiteko.

Paxisten kañoe toki bat e[illegible]tuta lotu zan, eŕizaliak egin eutsen eraso aldiaz.

Aŕatsalde lenean bere, gogoŕ ziarduen oindiño.

Buŕukearen amayaren baŕirik ez dakigu izpaŕ onek emotean. Bañan susmo dogunez, onuratsua izan da erkaldaŕentzat.

La Marañosa'ko paxisten su-leŕoai gogoŕ be gogoŕ jo dautse eŕizaliak, azkenengo artutako tokietatik, eta mendixkau gotortuten ari dira lasterka eŕitaŕak.

EL PLANTIO TA ROZAS ALDEAN

Madrid.—Plantio ta Rozas kañoiez zigortau ditue paxistak, eta jaŕayan auŕerakadea egin gura izan dabe, eŕizalien lekuak oso egokiak eritzita beingoan artu nairik.

Toki oŕetatik leku ta luŕalde bereziak azpian lez dagoz, batez be, bide ta bultzien bideburuak.

Madrid ingurutako nonbaitetik eŕizale talde andi bat urten zan Rozas alderantz. Emen eŕizalien esiak gogoŕ dagoz, eta arerioei, apurka apurka luŕalde zatirik be kendu dautse.

Málaga'n sartu ziranean

Igesika joyazanei egazkiñetatik izki llazkar ta bonbaz eraso eutsen paxistak

Amaika ume ta zar illotzik lotu ziran bidertzetan

BASATI JOKAERAK

Londres.—Odol-emote etxea, Instituto Hispano Americano dalako kanadaŕ sendagile Normand Bethume'k, Malaga'n paxisten sartzeyerako izpaŕak azaldu ditu.

Malaga'tik 150.000 lagunek arapalada itsuan alde egin beaŕa izan eben paxistak sartu ziranean. Oraingo aldietan uri bat utsitute izugaŕiagorik ez dala iñon izan, esan dau.

Bideetako aŕi koskoŕetan oñak apurtu beaŕan zituela, itsumustuan joyazala egazkiñez izkilazluar ta bonbaz eriotza nunai zabaldu eroien paxistak igesi joyazanen artean.

Bide ertzetan euren buruak etzan zituen ume ta aragoziago askok, egoera artan eriotzearen zain itxaroten lotuteko.

Ildegi benetakoak bide ertz areik.

Atzoko eguna euzko zaingoetan

Amar milla tonelada patata erosi dira landu bako lurretan sartzeko. Gaur agertuko da "Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokua"n jatetxetan jaki bakarra agintzen daben erabagia.-Beste gayak.

